

## Donostia Hiria XVIII. Pop-Rock lehiaketa irabazi zuen Correos taldearen disko aurkezpena

Gaur eguerdian aurkeztu da **FNAC Forum**-ean **Donostia Hiria XVIII. Pop-Rock lehiaketa** irabazi zuen [Correos](#) taldearen lehen diskoa.

Donostia Hiria Pop Rock Lehiaketa **Donostia Kultura** eta **40 Principales**-ek antolatu dute, Donostiako Udaleko **Gazteria eta Giza Eskubideen Atala**, **FNAC** eta **Sony ATV Music Publishing**-en laguntzarekin.

Gogoratu behar da iaz 32 maketa aurkeztu zirela eta abuztuaren 8an jokaturako finalean, Correos taldeak irabazi zuela. Donostia Kulturak lehen saria ematen du, **4 kanta dituen CD**aren grabaketa, **500 aleko tiradarekin**.

Correos taldeko partaideak **Fermin Bouza** (ahotsa), **Luis del Campo** (baxua) eta **Asier Mozo** (bateria) dira. Hiru gazte donostiarrek urtebete daramate musika egiten, eta erritmo elektronikoak dituzte gustuko, batez ere Ingalaterratik datozenak. Taldearen izena Igaran duten entsaio gela ondoan dagoen Correos enpresaren egoitzari zor diote.

**Modernos eternos** lan honetan bildutako kantak hauek dira. **Marte, Un sueño, Toda la verdad** eta **Está lloviendo**.

Zuzenean ikusteko aukera bat dugu laister. Izan ere, Correosek **abenduaren 18an**, gaueko **22:00**etan aurkeztuko baitu lan hau [Bukowski aretoan](#).

## Presentación del disco de Correos, grupo ganador del XVIII Concurso Pop-Rock Ciudad de San Sebastián

Este mediodía se ha presentando en el **Fórum FNAC** el primer trabajo de [Correos](#), grupo ganador el **XVIII Concurso Pop-Rock Ciudad de San Sebastián**.

Los organizadores del concurso son **Donostia Kultura** y **40 Principales**, con la colaboración de la Sección de **Juventud y Derechos Humanos del Ayuntamiento** de Donostia-San Sebastián, **FNAC** y **Sony ATV Music Publishing**.

Además de la organización del mismo, Donostia Kultura se encarga del primer premio: la grabación de un **CD de 4 temas con una tirada de 500 ejemplares**.

Los miembros de Correos son **Fermín Bouza** (voz), **Luis del Campo** (bajo) y **Asier Mozo** (batería) dira. Estos tres jóvenes donostiaras llevan un año tocando juntos, elaborando un sonido que bebe de los ritmos electrónicos provenientes de Inglaterra. El nombre de la banda hace referencia al lugar donde se encuentra el local de ensayo, en Igara, junto al almacén de Correos.

**Modernos eternos** es el título del trabajo y éstas las canciones que lo forman: **Marte, Un sueño, Toda la verdad** y **Está lloviendo**.

Próximamente tenemos la oportunidad de verlos en directo. Concretamente la banda estará el **18 de diciembre**, a las **22:00 horas**, en [la Sala Bukowski](#).